

04.05.2023



11

Aiherra

Pierre Etcheverryk buruz-buruka egin balentria



*François Bideondo txapelduna eta
Pierre Etcheverry finalista
(Argz: Abarratia)*

Frantziako txapelketaren buruz-burukako finala Lekorneko trinket betean iragan zen, joan den igandean zortzi. Abarratia pilota elkar-tea ohoretan zen, lehen aldikoz helduetako lehen mailan elkarteko pilotari bat hein hortara hupatzen baitzen.

Hastapenean 23 eta 15 irabazten bazuen, emeki-emeki hurbildu zaio Vincent Bideondo urruñarra, 30. punduan berdinduz. Azkenean 40 eta 33 galdu zuen. Gaztea da, 24 urte ditu, hobetzeko denbora baduela ez da dudarik. Goresmenak hein hortara heldurik, aupa Abarratia!